

## Pribatuen Iragarkiak

### EUSKAL TRENBIDE SAREA

IRAGARKIA, Euskal Trenbide Sarea entitateak kudeatzen dituen elektromekanika-instalazio eta -ekipoetako obretarako laguntza teknikoari buruzko lehiaketa publikoa, prozedura irekiz, kontratazko dena. 22828

IRAGARKIA, prozedura irekiaz ondoko lehiaketako kontratazioa egiteko: 2012. urtera begira, Euskotren-en Bilbao – Donostia-San Sebastián – Hendaia lineako energia-azterlana idazteko laguntza teknikoarena. 22830

## Xedapen Orokorrak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

6407

250/2005 DEKRETUA, irailaren 20koa, musika-ikasketen oinarrizko maila eta maila ertainaren curriculum eta maila horietara nola iritsi ezarri dituen.

Hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak bere zortzigarren artikuluan dioenez, curriculumean hezkuntza-sistemaren maila, etapa, ziklo, gradu eta modalitate guztietako helburu, eduki, metodo pedagogiko eta ebaluazio-irizpide oro sartzen da. Aurrekoan oinarrituta, eskumenen banaketa bikoitza egiten da: alde batetik, ikasle guztien formazio komuna eta dagozkion tituluen balioa bermatzeko, estatu osoan curriculumaren oinarrizko gaiak osatuko dituzten gutxienezko ikasketak finkatzea Gobernuari dagokio; eta, bestetik, aipatu gutxienezko ikasketak zein curriculumetan kokatu behar diren erabakitzea hezkuntza alorrean aginpideak dituzten Administrazioei dagokie. Beraz, ekainaren 26ko 756/1992 Errege Dekretuak musikaren oinarrizko mailari eta maila ertainari dagozkien gutxienezko ikasketak definitu ondoren, eta urriaren 27ko 288/1992 Dekretuak garatu eta gero, Musikaren maila ertaina aldatzeari ekin zaio.

Urriaren 27ko 288/1992 Dekretua hamabi urtez aplikatu da EAEn, eta horrek argitzen duen ikuspegia eta esperientzia kontuan hartuta, zenbait disfuntzio hauteman dira horren aplikazioan, baita Dekretua al-

## Anuncios Particulares

### EUSKAL TRENBIDE SAREA

ANUNCIO para la contratación por el procedimiento abierto de concurso público relativo a la asistencia técnica a la dirección de las obras de equipos e instalaciones electromecánicas gestionadas por Euskal Trenbide Sarea. 22828

ANUNCIO para la contratación por el procedimiento abierto de concurso público relativo a la asistencia técnica para la redacción del estudio energético de la línea Bilbao – Donostia-San Sebastián - Hendaia de Euskotren con el escenario previsto para 2012. 22830

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

6407

DECRETO 250/2005, de 20 de septiembre, por el que se establece el currículo del Grado Elemental y del Grado Medio de las enseñanzas de música y el acceso a dichos Grados.

La Ley Orgánica 10/2002 de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación, determina, en su artículo octavo, que constituyen elementos integrantes del currículo el conjunto de objetivos, contenidos, métodos pedagógicos y criterios de evaluación de cada uno de los niveles, etapas, ciclos, Grados y modalidades del sistema educativo. Sobre esta base efectúa un doble reparto competencial: por una parte, atribuye al Gobierno el fijar los aspectos básicos del currículo que constituirán las enseñanzas mínimas en todo el Estado con el fin de garantizar una formación común de todos los alumnos y la validez de los títulos correspondientes y, por otra, atribuye a las Administraciones con competencias educativas el establecimiento del currículo del que formaran parte dichas enseñanzas mínimas. Una vez definidas las enseñanzas mínimas correspondientes a los Grados Elemental y Medio de Música por Real Decreto 756/1992 de 26 de junio, su posterior desarrollo por el Decreto 288/1992, de 27 de octubre, se procede a la modificación del Grado Medio de Música.

La perspectiva y experiencia que proporcionan los doce años de aplicación del Decreto 288/1992, de 27 de octubre en la CAPV, hacen posible detectar varias disfunciones en la aplicación del mismo y nos propor-

datzeko gakoak agertu ere. Aldaketok, hain zuzen ere, maila ertainaren egitura-alderdiei eta maila horren helburuaren beraren gaineko hausnarketari dagozkie. Dekretu honek dakartzan aldaketak, beraz, hiru gai nagusitan laburbiltzen dira:

– Aldaketaren lehen gaiak irakasgaien izenari, eskola-orduei, irakasgaiak kurtsoka eta zikloka berrantolatzeari eta hutsen zuzenketari eragiten die.

– Bigarren multzoak maila ertaineko hirugarren zikloko aukerako irakasgaien erregulazioari ekin dio.

– Azkenik, aldaketaren hirugarren zatiaren bitartez, hausnarketa egin da musikaren maila ertainaren helburuez.

Egungo curriculumak aplikatzearen ondoriozko disfuntzio guztien izendatzailerik komunetako bat halako zurruntasun gehiegizko bat izan da. Hori dela eta, aldaketa honetan proposatzen diren mudantzek ondoko printzipioak hartu dituzte oinarri:

a) Irekitzea, jazza bezalako diziplinetako prestakuntza eta beste estetika batzuetara hurbiltzea ahalbidetuz eta sustatuz, baita instrumentu osagarrien alorrean sartuz tresna elektrofono edo anplifikatuen familia ere.

b) Malgutasuna, maila ertainaren hirugarren zikloan hautazkotasun-gune bat jarritz, profilen aniztasuna ahalbidetu eta sustatzearen, eta ikaslearen proiektu pertsonala ahalik eta ondoen gauzatzeko arte- eta teknika-baliabideak eskuratzearen.

c) Koherentzia, pilotutako esperientzia erabiliz curriculumak ahalik eta gehien egokitzeke ikastetxeen hezkuntza-beharrei.

d) Dinamizazioa, kontserbatorioen autonomia pedagogikoa sustatuz eta garrantzia berezia emanez Ikastetxearen Curriculum-proiektuari; izan ere, irakaskuntza-taldeak bere praktikaz egindako etengabeko azterketaren emaitza izan behar du, eta adi eta erne egon behar du, Euskal Herriko musika-eremuari lotuta eta bertako eragile.

Maila ertaineko curriculumaren malgutasun eta koherentziaren bila doazen printzipioak abiapuntutzat hartuta, aldaketa nabarmena egin zaio instrumentu osagarrien alorrari.

Izan ere, planteamendu malguak Instrumentu Osagarria hobesteko aukera emango die gaur egunera arte Piano Osagarria ikasgaia nahitaez eman behar zuten zenbait espezialitatetako ikasleei. Hartara, akordeoi, gitarra, txistu, organo, klabe, harpa edo piano espezialitatekoek euren interesetatik gertuen dagoen tresna aukeratu ahal izango dut. Era berean, Moko-txirula, Zango-biola eta Errenazimentuko eta Barrokoko hari pul-

ción además las claves para su modificación. Estas afectan tanto a aspectos estructurales como a cuestionamientos sobre la propia finalidad del Grado Medio. Las modificaciones contempladas en el presente Decreto se centran en tres cuestiones principales.

– Una primera cuestión de la modificación, afecta a la nomenclatura de diferentes asignaturas, los tiempos lectivos, la reorganización por cursos y ciclos de las mismas así como a la corrección de errores.

– Un segundo bloque, aborda la regulación de las asignaturas optativas en el tercer ciclo de Grado Medio, y la implantación de una nueva asignatura en los tres ciclos.

– Finalmente el tercer bloque de esta modificación, reflexiona sobre la finalidad del Grado Medio música.

Un denominador común a todas las disfunciones derivadas de la aplicación del currículo actual, es el derivado de un cierto exceso de rigidez. Por ello los cambios que se proponen en esta modificación, han sido realizados a partir de los siguientes principios:

a) Apertura, posibilitando y potenciando la formación en disciplinas como el jazz y el acercamiento a otras estéticas contemporáneas e incorporando al área de Instrumentos Complementarios, la familia de instrumentos electrónicos o amplificadas.

b) Flexibilidad, a través de la implantación de un espacio de optatividad en el tercer ciclo de Grado Medio, que posibilite y potencie una diversidad de perfiles, y proporcione los Medios artísticos y técnicos para realizar lo mejor posible el proyecto personal del alumno.

c) Coherencia, incorporando la experiencia acumulada para adecuar al máximo el currículo a las necesidades educativas de los centros.

d) Dinamización, potenciando la autonomía pedagógica de los conservatorios y dotando de especial importancia el contenido y desarrollo del Proyecto Curricular de Centro, que debe de ser el fruto del análisis permanente que el equipo docente efectúe sobre su propia práctica y que debe de permanecer conectado y atento como agente activo dentro del ámbito musical del País Vasco.

A partir de los principios que buscan la flexibilidad y la coherencia del currículo de Grado Medio, se ha procedido a variar considerablemente el área que afecta a los instrumentos complementarios.

Un planteamiento flexible, permitirá que el alumnado de algunas especialidades que hasta ahora obligatoriamente debían cursar la asignatura de Piano Complementario, puedan optar por la de Instrumento Complementario. Así las especialidades como el acordeón, la guitarra, el txistu, el órgano, el clave, el arpa o el piano podrán elegir cualquier el instrumento que se acerque más a sus intereses. Asimismo las especialidades de

tsatuzko instrumentuak espezialitatekoek klabea aukeratzea daukate instrumentu osagarritzat.

Maila ertainaren curriculuma zabaltzeko printzipioak, halaber, tresna elektrofono edo anplifikatuen -hala nola, gitarra elektrikoa edo baxu elektrikoa- ikasketak egiteko aukera emango du, instrumentu osagarrien alorrean.

Ondorioz, helburuak ere zabaldu egin dira, eta horrekin, gainera, arreta eman nahi zaio ikasleen prestakuntza-prozesuan sor daitekeen profil- eta interes-aniztasunari.

Dekretu honek hautazkotasun-gune zabala proposatzen du maila ertainaren hirugarren ziklorako, eta ikastetxeen esku utzi du zenbait ibilbide egituratzea, bakoitzaren curriculum proiektuaren arabera. Aurreko Dekretuan nahitaezkotzat jotako irakasgai batzuk aukerako bihurtu dira, eta ikastetxeek ibilbide koherente eta errealistak zehaztu ditzakete, maila ertainaren hirugarren zikloaren izaera bikoitza, amaierakoa eta propeudeutikoa, bereganatuz, gainera.

Dekretu honen berritasun behinenetako bat da maila ertaineko curriculumean irakasgai berria sartu duela: Errepertorioa pianista laguntzailearekin. Ildo horretatik, irakasgai izaera eman zaio kontserbatorioek euren ikasleei eskaini izan dieten zerbitzu bati; zerbitzu horrek, hain zuzen ere, gorabeherak izan ditu, zenbait inguruabarren arabera.

Pianista laguntzaileen lana erdi mailako oinarrizko gaien curriculumean agertu ez izanak legezko hutsunea eragin du, eta ondorioz, zaildu egin dira bai prestakuntzarekin berarekin lotutako alderdiak, bai ikastetxeetako kontratazio eta antolamenduarekin zerikusia zutenak.

Zerbitzu hori erabateko irakasgai osotzat hartzeak, beraz, behin betiko konponduko du arazoa, eta eskola-ordu berberak emango dizkie irakasgai hori bere baitan hartzen duen edozein ahots- zein instrumentu-espezialitateko erdi mailako ikasle guztiei. Hartara, berdintasun-printzipioa ziurtatzen da, gure hezkuntza-sistemak kontserbatorio-erabiltzaile orori bermatu behar baitio.

Azkenik, hauxe azpimarratu behar: gure hezkuntza-sistemak, bere eskumen-esparruaren baitan, musika-ofizioen inguruan dagoen lege-hutsuneari erantzuna ematen ahalegindu behar duela. Gure inguruko musika-, kultura-, hezkuntza- eta lan-errealitateak musika-profesionalak eskatzen ditu, hezkuntza-sistemak aurreikusi gabeko eremuetan prestatuak. Ildo horretatik, musikaren maila ertainak goi-mailarako igarobide-helburua heda dezake, hezkuntza-administrazioak egoki iri-

Flauta de Pico, Viola da Gamba e Instrumentos de Cuerda Pulsada del Renacimiento y Barroco podrán elegir el clave como instrumento complementario.

El principio de la apertura del currículo de Grado Medio, permitirá así mismo, cursar estudios de instrumentos electrófonos o amplificados como la guitarra eléctrica o el bajo eléctrico, como Instrumento Complementario.

Surge por tanto una ampliación de los objetivos, que tratan de atender además, a la diversidad de perfiles e intereses que pueden surgir en el proceso de formación del alumnado.

El presente Decreto propone un importante espacio de optatividad en el tercer ciclo de Grado Medio, dejando en manos de los centros, la estructuración de diferentes itinerarios, en función de su Proyecto Curricular. Asignaturas que en el anterior Decreto tenían un tratamiento de asignaturas obligatorias, pasan a optativas, pudiendo los centros determinar itinerarios coherentes y realistas, que asuman además, el doble carácter del tercer ciclo de Grado Medio, terminal y propeúutico.

Uno de los aspectos más novedosos contemplados en el presente Decreto es la inclusión en el currículo de Grado Medio de una nueva asignatura denominada «Repertorio con pianista acompañante». En tal sentido se otorga el rango de asignatura a un servicio que los conservatorios han venido ofreciendo a sus alumnos, con desigual fortuna, dependiendo de diversas circunstancias coyunturales.

El hecho de que la actividad llevada a cabo por los pianistas acompañantes no haya figurado en el currículo de aspectos básicos de Grado Medio de música, ha provocado un vacío legal que ha venido dificultando tanto los aspectos relacionados con la propia formación, como aquellos relacionados con la contratación y organización de los centros.

Entender este servicio, como una asignatura de pleno derecho, soluciona la cuestión de forma definitiva, otorgando un tiempo lectivo igual a todos los alumnos de Grado Medio en cuya especialidad vocal o instrumental se haya incluido esta asignatura. De esta manera se asegura el principio de igualdad que nuestro sistema educativo debe garantizar para todos los usuarios de los Conservatorios.

Finalmente, destacar la necesidad de que nuestro sistema educativo, dentro de su marco competencial, intente dar respuesta al vacío legislativo que existe entorno a los diferentes oficios de la música. La realidad musical, cultural, educativa y laboral de nuestro entorno, exige profesionales de la música, formados en ámbitos que el sistema educativo no contempla. Así el Grado Medio de música puede ampliar su finalidad de tránsito hacia el Grado superior, mediante la articulación

tzitako prestakuntza-ikastaroak taxutuz, errealitate soziodisprofesional jakin batzuei arreta emateko.

Horren indarrez, Euskadiko Eskola Kontseiluak txostena emanda, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren adostasunarekin, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, eta 2005eko irailaren 20an egindako bilkuran Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak alde aurretik eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*– Dekretuaren xedea.

Dekretu honek musika-irakaskuntzetarako garatu du Hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak bere 8.3 artikuluan xedatu duena, eta oinarritzko mailako eta maila ertaineko gutxieneko irakaskuntzak erregulatu dituen ekainaren 26ko 756/1992 Errege Dekretuak ezarritakoa integratu du, baita hura osatzera etorri diren abenduaren 27ko 1463/2001 Errege Dekretuak eta azaroaren 25eko 2194/2004 Errege Dekretuak ezarritakoa ere. Beraz, ondokoak arautzen ditu, besteak beste:

1.– Musika-irakaskuntzaren oinarritzko mailako eta maila ertaineko curriculumak.

2.– Oinarritzko mailara sartzeko irizpideak eta maila ertainerako sarrera-proba.

3.– Ebaluazio- eta promozio-irizpideak.

*2. artikulua.*– Aplikazio-eremua.

Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoaren kudeaketako lurralde-eremuan aplikatuko da.

*3. artikulua.*– Irakaskuntzaren antolamendua.

Musikaren irakaskuntza profesionalak, oinarritzko mailari eta maila ertainari dagokionez, lau ikasturte izango ditu oinarritzko mailan, eta bina ikasturteko hiru ziklo maila ertainean, Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 39.1.a eta b artikulua xedatu duenaren arabera.

*4. artikulua.*– Curriculumak.

Dekretu honetan xedatutakoari dagokionez, oinarritzko maila eta maila ertaineko musika-irakaskuntzen curriculumtzat joko da maila horietako irakaskuntza arautuko duen helburu, eduki, pedagogia-metodo eta ebaluazio-irizpideen multzoa.

de cursos formativos que, atendiendo a determinadas realidades socioprofesionales, la Administración educativa estimara pertinentes.

En virtud de todo ello, oído el Consejo Escolar de Euskadi y de conformidad con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 20 de septiembre de 2005,

DISPONGO:

CAPÍTULO I  
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– Objetivo del Decreto.

El presente Decreto constituye el desarrollo para las enseñanzas de Música de lo dispuesto en el párrafo 3 del artículo 8 de la Ley Orgánica 10/2002 de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación, e integra lo establecido en el Real Decreto 756/1992, de 26 de junio de 1992, regulador de las enseñanzas mínimas de dichos Grados, completado por el Real Decreto 1463/2001, de 27 de diciembre, y el Real Decreto 2194/2004, de 25 de noviembre, por lo que, entre otros aspectos, regula:

1.– El currículo de los Grados Elemental y Medio de Enseñanza de Música.

2.– Los criterios de ingreso al Grado Elemental y la prueba de acceso al Grado Medio.

3.– Los criterios de evaluación y promoción.

*Artículo 2.*– Ámbito de aplicación.

El presente Decreto será de aplicación en el ámbito territorial de gestión de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

*Artículo 3.*– Organización de estas enseñanzas.

La enseñanza profesional de la música en sus Grados Elemental y Medio se organizará en cuatro cursos de Grado Elemental y tres ciclos de dos cursos cada uno de Grado Medio según lo dispuesto en el artículo 39.1, apartados a y b respectivamente, de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo.

*Artículo 4.*– Currículo.

A los efectos de lo dispuesto en este Decreto, se entiende por currículo de las enseñanzas de música de los Grados Elemental y Medio, el conjunto de objetivos, contenidos, métodos pedagógicos y criterios de evaluación que han de regular la práctica docente en estos Grados.

## II. KAPITULUA OINARRIZKO MAILAKO IRAKASKUNTZAK

### 5. *artikulua*.– Oinarrizko mailaren helburuak.

Musika-irakaskuntzetako oinarrizko mailak ikasleengan ondoko gaitasunak garatzen lagunduko du:

a) Musikaren garrantziaz jabetzea, herrien eta pertsonen arte-hizkuntza eta kultura-adierazpide den aldetik.

b) Musika- eta estetika-sentikortasunez jardutea, oro eta estilo desberdinetako musika interpretatu eta gozatu, komunikazio-ahalmenak aberastu eta pertsona gisa errealizatzeko.

c) Arnasketaren eta nor bere gorputzaren kontrolaren garrantzia ezagutu eta baloratzea, instrumentu-teknika, soinu-kalitate eta interpretazio-garapenari dago kienez.

d) Instrumentua jotzeak behar dituen muskulu-erlaxazioaren eta ezinbesteko ahalegin edo esfortzuaren arteko oreka aurkitzea, ondokoa kontuan hartuta: gorputzak osotasun gisa funtzionatzen duela, bizkarrezurra ardatz duela.

e) Musika-ezagutzak bakoitzaren espezialitateko instrumentuaren idazketaren eta literaturaren ezaugarriekin erlazionatzea, interpretazio artistikoa garatzea ahalbidetuko duten oinarriak eskuratzearren.

f) Jendaurrean interpretatzea, bakoitzak bere buruan aski segurtasun izanik musika komunikabidez bizi ahal izateko.

g) Musika taldeka interpretatzea, beste ahots edo instrumentuak entzutera ohituz eta taldera harmonikoki egokituz.

h) Bakoitzaren lanaren garrantziaz jabetzea, eta nork bere burua entzuteko eta kritikatzeko ahalmena eskuratzeko.

i) Isiltasuna ezinbestekotzat jotzea kontzentrazioaren, barne-entzumenaren eta musika-pentsamenduaren garapenerako.

### 6. *artikulua*.– Espezialitateak.

Oinarrizko mailaren curriculumean ondoko espezialitateak landuko dira:

Akordeoa edo eskusoinua  
Harpa  
Klarineta  
Klabezina  
Kontrabaxua  
Fagota  
Zeharkako txirula  
Moko-txirula  
Gitarra  
Zi-instrumentuak  
Oboea

## CAPÍTULO II ENSEÑANZAS DE GRADO ELEMENTAL

### *Artículo 5*.– Objetivos del Grado Elemental.

El Grado Elemental de las enseñanzas de música contribuirá a desarrollar en los alumnos las siguientes capacidades:

a) Apreciar la importancia de la música como lenguaje artístico y Medio de expresión cultural de los pueblos y de las personas.

b) Expresarse con sensibilidad musical y estética para interpretar y disfrutar la música de las diferentes épocas y estilos, enriquecer sus posibilidades de comunicación y realizarse en ella.

c) Conocer y valorar la importancia de la respiración y del dominio del propio cuerpo en el desarrollo de la técnica instrumental, de la calidad del sonido y de la interpretación.

d) Encontrar el equilibrio entre la relajación muscular y el esfuerzo indispensable que exige la ejecución instrumental teniendo en cuenta que el cuerpo funciona como un todo cuyo eje es la columna vertebral.

e) Relacionar los conocimientos musicales con las características de la escritura y literatura del instrumento de la propia especialidad, con el fin de adquirir las bases que permitan desarrollar la interpretación artística.

f) Interpretar en público, con la necesaria seguridad en sí mismo para vivir la música como Medio de comunicación.

g) Interpretar música en grupo habituándose a escuchar otras voces o instrumentos y a adaptarse armónicamente al conjunto.

h) Ser conscientes de la importancia del trabajo individual y adquirir la capacidad de escucharse y ser críticos consigo mismo.

i) Valorar el silencio como elemento indispensable para el desarrollo de la concentración, audición interna y el pensamiento musical.

### *Artículo 6*.– Especialidades.

El currículo del Grado Elemental se referirá a cada una de las siguientes especialidades:

Acordeón  
Arpa  
Clarinete  
Clave  
Contrabajo  
Fagot  
Flauta travesera  
Flauta de pico  
Guitarra  
Instrumentos de Púa  
Oboe

Perkusioa  
Pianoa  
Saxofoia  
Tronboia  
Tronpa  
Tronpeta  
Tuba  
Txistua  
Biola  
Zango-biola  
Biolina  
Biolontxelo

**7. artikulua.**— Irakasgaiak eta curriculum.

1.— Aurreko espezialitateetako bakoitzaren oinarriko mailari dagozkion irakasgaiak, kurtsokako banaketa eta eskola-denborak Dekretu honen I. eranskinean ezarritakoak dira.

2.— Oinarriko mailako curriculumaren edukiak, helburuak eta ebaluazio-irizpideak Dekretu honen III. eranskinean ezarritakoak dira.

3.— Maila honetako metodologia-oinarriak V. eranskinean ageri dira.

4.— Perkusio-espezialitateko instrumentu-irakas-kuntza taldeka egingo da, eta irakasle/ikasle erlazio numerikoa ez da 1/5 baino gehiago izango. Gainerako espezialitateetan, berriz, banakakoa izango da irakasgai hori, eta 30 minutuko saiotan emango da, ahal dela.

III. KAPITULUA  
MAILA ERTAINEKO IRAKASKUNTZAK

**8. artikulua.**— Helburuak.

Musika-irakaskuntzetako maila ertainak ikasleengan ondoko ahalmenak garatzen lagunduko du:

a) Musika entzutera ohitzea, musika-kultura eratu eta kontzeptu estetikoak ezartzeko, bakoitzaren interpretazio-irizpideak garatu eta oinarritzearen.

b) Musikaren kalitatea beren barne-balioen arabera analizatu eta kritikoki baloratzea.

c) Gure kulturaren musika-ondarea ezagutu eta aintzat hartzea, eta beste herrietako aniztasuna ulertzea, gogoz eta errespetuz.

d) Musikaz gozatzea beste batzuegana hedatzeko esperientzia bizitzeko aukera emango dioten musika- eta kultura-jardueretan parte hartzea.

e) Gorputzaren eta adimenaren kontrola baloratzea, teknika seguru erabili eta entzuketa-interpretazioetan zentratzearen.

f) Ezagutza harmoniko, formal eta historikoak aplikatzea, kalitatezko interpretazio artistikoa lortzearen

Percusión  
Piano  
Saxofón  
Trombón  
Trompa  
Trompeta  
Tuba  
Txistu  
Viola  
Viola da Gamba  
Violín  
Violoncello

**Artículo 7.**— Asignaturas y currículo.

1.— Las asignaturas correspondientes al Grado Elemental, su distribución por cursos y los tiempos lectivos correspondientes a cada una de ellas son las que se establecen en el anexo I del presente Decreto.

2.— Los contenidos, objetivos, y criterios de evaluación del currículo del Grado Elemental son los que se establecen en el anexo III del presente Decreto.

3.— Los principios metodológicos de este Grado figuran en el anexo V.

4.— En la especialidad de percusión la enseñanza instrumental será colectiva, con una relación numérica profesor/alumno no superior a 1/5. En el resto de especialidades esta asignatura tendrá carácter individual, y será impartida preferentemente en sesiones de 30 minutos.

CAPÍTULO III  
ENSEÑANZAS DE GRADO MEDIO

**Artículo 8.**— Objetivos.

El Grado Medio de las enseñanzas de música contribuirá a desarrollar en los alumnos las siguientes capacidades:

a) Habitarse a escuchar música para formar su cultura musical y establecer un concepto estético que les permita desarrollar y fundamentar los propios criterios interpretativos.

b) Analizar y valorar críticamente la calidad de la música en relación con sus valores intrínsecos.

c) Conocer y apreciar el patrimonio musical de nuestra cultura y entender la diversidad de otros pueblos con una actitud de interés y respeto.

d) Participar en actividades de animación musical y cultural que les permitan vivir la experiencia de trasladar el goce de la música a otros.

e) Valorar el dominio del cuerpo y de la mente para utilizar con seguridad la técnica y concentrarse en la audición e interpretación.

f) Aplicar los conocimientos armónicos, formales e históricos para conseguir una interpretación artística de calidad.

g) Aro eta estiloen panorama zabalaren barnean, bere instrumentuarentzako banakako eta taldekako erreperitorioa ezagutzea.

h) Talde batean beste kideen pare edo taldeburu jarduten jakiteko behar den gogoia izatea.

i) Jendaurrean aritzea autokontroluz, oroimenaren jabe eta komunikatzeko gaitasunez.

j) Bat-bateko irakurketa eta inprobisazioa erraz erabiltzea.

k) Egungo musika-hizkuntzetan idatzitako obrak ezagutu eta interpretatzea, eta munduko musika eta estetiketara hurbiltzea erraztea.

l) Ikasitako banakako erreperitorioa buruz interpretatzea.

m) Nork bere buruaren, nolakotasunen eta gaitasunen irudi egokia eratu eta ikasketa-ohiturak garatzea, errendimendua erabilitako denboraren arabera baloratuz.

#### 9. artikulua.— Espezialitateak.

Seigarren artikuluan jasotakoez gain, ondoko espezialitateak ezarri dira maila ertainean: Kantua, Organoa eta Errenazimentuko eta Barrokoko hari pultsatuzko instrumentuak.

#### 10. artikulua.— Irakasgaiak eta curriculum.

1.— Maila ertaineko irakasgaiak hiru motatakoak dira: nahitaezkoak, espezialitate guztietarako komunak; nahitaezkoak, espezialitate bakoitzerako bereziak; eta aukerakoak.

2.— Espezialitate bakoitzari dagozkion irakasgaiak, kurtsokako banaketa eta dagokien ordutegia Dekretu honen II. eranskinean ezarritakoak dira.

Zentroek aukera izango dute ordu horiek asteka ez antolatzeko, urteko ordutegiari eusten bazaio, betiere. Instrumentu- eta kantu-irakaskuntza banakakoa izan da, eta eskola-saioek 60 minutu iraungo dute.

3.— Maila ertaineko irakasgaien edukiak, helburuak eta ebaluazio-irizpideak Dekretu honen IV. eranskinean ezarritakoak dira.

4.— Maila honetako metodologia-oinarriak V. eranskinean ageri dira.

#### 11. artikulua.— Nahitaezko irakasgai komunak.

Espezialitate guztietarako nahitaezko irakasgai komun dira:

a) Instrumentu nagusia, 9. artikuluan ezarritako espezialitateen arabera.

b) Musika Hizkuntza.

c) Ganbera Musika.

d) Harmonia.

g) Conocer el repertorio solista y de conjunto de su instrumento dentro del amplio panorama de las diferentes épocas y estilos.

h) Tener la disposición necesaria para saber integrarse en un grupo como un miembro más del mismo o para actuar como responsable del conjunto.

i) Actuar en público con autocontrol, dominio de la memoria y capacidad comunicativa.

j) Utilizar con facilidad la lectura a primera vista y la improvisación.

k) Conocer e interpretar obras escritas en lenguajes musicales contemporáneos y propiciar el acercamiento a las estéticas y músicas del mundo.

l) Interpretar de memoria el repertorio solista estudiado.

m) Formarse una imagen ajustada de sí mismo, de sus características y posibilidades y desarrollar hábitos de estudio valorando el rendimiento en relación con el tiempo empleado.

#### Artículo 9.— Especialidades.

Además de las recogidas en el artículo sexto, se establecen en el Grado Medio las especialidades de Canto, Órgano e Instrumentos de cuerda pulsada del Renacimiento y Barroco.

#### Artículo 10.— Asignaturas y currículo.

1.— Las asignaturas del Grado Medio son de tres tipos: Obligatorias comunes a todas las especialidades, Obligatorias específicas de cada especialidad y Optativas.

2.— Las asignaturas correspondientes a cada especialidad, su distribución por cursos y el horario correspondiente, se establecen en el anexo II del presente Decreto.

Los centros podrán organizar de modo no semanal las horas indicadas, siempre que el horario anual se mantenga. La enseñanza del instrumento y del canto tendrá carácter individual, y las sesiones lectivas serán de 60 minutos.

3.— Los contenidos, objetivos y criterios de evaluación de las asignaturas del Grado Medio se establecen en el anexo IV del presente Decreto.

4.— Los principios metodológicos de este Grado se señalan en el anexo V.

#### Artículo 11.— Asignatura obligatorias comunes.

Son asignaturas obligatorias comunes a todas las especialidades:

a) Instrumento principal, de acuerdo con las especialidades establecidas en el artículo 9.

b) Lenguaje Musical.

c) Música de Cámara.

d) Armonía.

**12. artikulua.**– Espezialitateko nahitazko irakasgaiak.

1.– Espezialitateko nahitazko irakasgai dira:

- a) Orkestra.
- b) Korua.
- c) Atzerriko hizkuntzak, kantuari aplikatuak.
- d) Errepertorioa pianista laguntzailearekin.
- e) Errepertorioa klabezinista laguntzailearekin.
- f) Piano osagarria.
- g) Instrumentu osagarria.
- h) Akonpainamendua.

2.– Kantuari aplikatutako atzerriko hizkuntzetan, italiera emango da lehen zikloan, alemana 2.ean, eta frantsesa 3.ean.

3.– Oro har, instrumentu osagarritzat eskaini ahal izango da zentroak egoki iritzitako edozein, zentroaren antolamendu-aukeren barruan badago. Jazzaren eta musika modernoaren eremuko instrumentu elektrofonoak ere gehitu ahal izango dira. Pianoa ere izango da eskaintza horren barruan.

4.– Moko-txirula, Errenazimentuko eta Barrokoko hari pulsatuzko instrumentuak eta Zango-biola espezialitateetarako, zentroak Klabezina bultzatuko du instrumentu osagarritzat. Kontrabaxuko ikasleek Baxu elektrikoa ikasi ahal izango dute Piano osagarriaren orde, zentroak eskaintzen badu behintzat.

**13. artikulua.**– Aukerako irakasgaiak.

1.– Ahots- edo instrumentu-espezialitate berean profil-aniztasuna sustatzearen, eta ikasleen interesak eta beharrak ere askotarikoak direnez, aukerako irakasgaiak izango dira maila ertaineko hirugarren zikloan. Horiekin, eta tutorearen aholkularitza jaso ondoren, asteko 4,30 eta 5 irakastordu osatu ahal izango dira espezialitate gutzietan.

2.– Aukerako irakasgaiak bi multzotan sailkatuko dira, edukien eta iraupenaren arabera.

Aukerako irakasgai oinarritzat joko dira hirugarren ziklo guztian asteko ordu bat gutxienez irauten dutenak, baldin eta edukiak ere funtsezkotzat jotzen bada irakaslearen prestakuntza-ibilbidearen taxuketan.

Aukerako irakasgai osagarritzat joko dira, aldiz, hirugarren ziklo guztian asteko ordu bat edo gutxiago irauten dutenak, baldin eta edukiak eremu teoriko-humanistikokoak zein praktikokoak badira, edota zentroak egokitzen jotako beste edozeinetakoak.

Ikasleek aukerako irakasgai oinarritzat bi egin behar dituzte gutxienez ziklo horretan, eta gainerako aukerako irakasgaietarako matrikulazioa librea izango da.

**Artículo 12.**– Asignaturas obligatorias de especialidad.

1.– Son asignaturas obligatorias específicas de especialidad:

- a) Orquesta.
- b) Coro.
- c) Lenguas extranjeras aplicadas al canto.
- d) Repertorio con pianista acompañante.
- e) Repertorio con clavecinista acompañante.
- f) Piano Complementario.
- g) Instrumento complementario.
- h) Acompañamiento.

2.– Como Lengua extranjera aplicada al canto se impartirá Italiano en el primer ciclo, Alemán en el 2.º y Francés en el 3.º.

3.– Con carácter general, como Instrumento complementario podrá ser ofertado todo aquel que el centro considere oportuno, dentro de sus posibilidades organizativas. Podrán añadirse los instrumentos electrónicos del ámbito del Jazz y de la Música moderna. El piano deberá formar parte de dicha oferta.

4.– Para las especialidades de Flauta de Pico, Instrumentos de cuerda pulsada del Renacimiento y del Barroco y Viola da Gamba, el centro propiciará el Clave como Instrumento complementario. El alumnado de Contrabajo podrá cursar Bajo Eléctrico en lugar de Piano complementario, si el centro lo oferta.

**Artículo 13.**– Asignaturas optativas.

1.– Con la finalidad de potenciar la diversidad de perfiles dentro de la propia especialidad vocal o instrumental, y respondiendo a la diversidad de intereses y necesidades del alumnado, en el tercer ciclo de Grado Medio habrá asignaturas optativas. Con ellas, y previo asesoramiento del tutor, podrá completar una carga lectiva entre 4,30 y 5 horas semanales en todas las especialidades.

2.– En función de sus contenidos y su duración las optativas se clasificarán en dos grupos.

Se considerarán Optativas básicas aquellas asignaturas cuya duración nunca sea inferior a una hora semanal a lo largo de todo el tercer ciclo y cuyos contenidos sean considerados fundamentales en la conformación del itinerario formativo del alumno o alumna.

Y se considerarán Optativas complementarias, aquellas asignaturas cuya duración sea igual o inferior a una hora semanal a lo largo de todo el tercer ciclo y cuyos contenidos se circunscriban tanto al ámbito teórico-humanístico como al práctico o a cualquier otro ámbito que el centro considere adecuado.

Los alumnos deberán cursar obligatoriamente al menos dos optativas básicas a lo largo del ciclo, siendo libre la matriculación del resto de asignaturas optativas.



3.– Zentroek bere esku izango dute aukerako irakasgaiak asteka ez antolatzea. Hartara, asteroko aukerakoak jarri ahal izango dira, hirugarren ziklo osoan zehar; urtekoak, hirugarren zikloko kurtso batean baino emango ez direnak, astero eman ere; lauhilekoak, hirugarren zikloko kurtso bateko lauhileko batean bakarrik emango direnak; trinkoak, hirugarren zikloko aldi jakin batean, bata bestearen ondorengo egun eta/edo astetan antolatuak; edo beste edozein, irakasgaiak zikloan duen gutzizko klase-ordutegiari eusten bazaio, betiere.

4.– Zentroek ikasleei eskainitako aukerako irakasgaiak bide emango dute artikuluko honetako bigarren paragrafoan adierazitako ataletako bakoitzean hautatzeko izateko. Euskal Autonomia Erkidegoko zentro gutzietik nahitaez sartu beharko dituzte eskaintza horretan:

- a) Analisia, asteko bi irakastordurekin.
- b) Konposizio-oinarriak, asteko bi irakastordurekin.
- c) Musikaren historia, asteko bi irakastordurekin.

d) Instrumentu nagusiaren errepertorioa, asteko 30 irakasminuturrekin.

5.– Aukerako beste irakasgai batzuk ere proposatu ahal izango dituzte zentroek, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako baldintza eta prozeduraren arabera onetsiko dira.

6.– Ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari:

- Irakasgaiaren nomenklatura.
- Irakasgaiaren deskripzioa eta justifikazioa.
- Helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak.
- Orientazio-gisa VI. eranskinean zerrendatzen diren prestakuntza-ibilbideei edo zentroak aurkez ditzakeen beste batzuei nola egokitzen zaien.
- Maiztasuna.

7.– Irakasgai sortu berria bada, irakasgai hori emateko ardura duten irakasleen profila eta curriculum vitae ere aurkeztuko dira, profesional horiek irakasgai emateko aski ezagupen badutela justifikatzearen.

8.– Aukerako irakasgai propio horiek zentroaren Pedagogia Batzordearen aurreko onespena beharko dute baimenduak izateko.

9.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere esku izango du beste aukerako irakasgai batzuk ezartzea, bai zentroek nahitaez eskaini beharrekoak bai eskaintza librekoak.

3.– Los centros podrán organizar las asignaturas optativas de modo no semanal. Así podrá haber optativas de ciclo semanal, durante todo el tercer ciclo; anuales, semanalmente durante un solo curso del tercer ciclo; cuatrimestrales, durante un solo cuatrimestre de uno de los cursos del tercer ciclo; intensivas, durante un período determinado del tercer ciclo, estructurado en días y/o semanas consecutivas, o cualquier otra siempre que el horario total de impartición de la materia a lo largo del ciclo se mantenga.

4.– La oferta de asignaturas optativas que los centros realicen a su alumnado deberá permitir la optatividad en cada uno de los apartados citados en el párrafo segundo de este artículo. En dicha oferta deberá incluirse obligatoriamente en todos los centros de la Comunidad Autónoma Vasca las siguientes materias:

- a) Análisis, con una carga lectiva de dos horas semanales.
- b) Fundamentos de composición, con una carga lectiva dos horas semanales.
- c) Historia de la música, con una carga lectiva de dos horas semanales.

d) Repertorio Instrumento principal, con una carga lectiva de 30 minutos semanales.

5.– Los centros podrán proponer otras materias optativas, que deberán ser aprobados según los requisitos y procedimiento que establezca el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

6.– La documentación a presentar al Departamento de Educación, Universidades e Investigación será la siguiente:

- Nomenclatura de la asignatura.
- Descripción y justificación de la misma.
- Objetivos, contenidos y criterios de evaluación.
- Adecuación a los itinerarios formativos que de modo orientativo se relacionan en el anexo VI, u otros que pueda presentar el centro.
- Periodicidad.

7.– En el caso de que la asignatura sea de nueva creación se aportará perfil y curriculum vitae del profesorado encargado de la docencia de dicha asignatura, que justifique los conocimientos de dicho profesional para impartir la asignatura de estudio.

8.– Para ser autorizadas las asignaturas optativas propias deberán contar con la aprobación previa de la Comisión Pedagógica del centro.

9.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación podrá establecer nuevas materias optativas, ya sea con carácter de oferta obligatoria para los centros o de oferta libre.

**14. artikulua.**– Lanbide Espezializazioko Programak.

1.– Musikako maila ertaineko hirugarren zikloan hasitako berriazko prestakuntza-prozesuak garatu eta osatzeko asmoz, eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 39.5 artikulua ezarritakoaren arabera, Musikako lanbide-titulua atera ondorengo ikasketak arautuko ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. Ikasketak horiek Lanbide Espezializazioko Programak hartuko dute izen generikotzat.

2.– Ildo horretatik, «Pedagogia orokor eta espezializatua» izeneko lanbide-espezializazioko programa sortu da. Urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan «Musika Eskola» direlako arautu gabeko berriazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezarri dituenak, bere 7. xedapen iragankorrean dioenaren arabera, prestakuntza horrek musika-eskoletako 1., 2. eta 3. mailtako irakaskuntza emateko gaitasuna eskainiko du. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarriko ditu programa horren curriculum eta ezaugarriak, eta dagozkion ziurtagiriak emango dizkie horretarako ikasketak gainditzen dituztenei, bertan adieraziz zer mailarako gaitasuna ematen duen.

3.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lehenetsuna emango dio lanbide-espezializazioko zenbait programari, hala nola, Luteriari, Musika Artxiboak Berreskuratzeari... Programa horiek behin betikoak edo esperimentalak izan daitezke. Esperimentalak badira, abiarazi eta gehienez ere hiru ikasturteko epearen barruan ebaluatuko dira, eta ebaluazio positiboa jasoz gero, orokortu edo zabaldu egingo dira.

#### IV. KAPITULUA XEDAPEN KOMUNAK

**15. artikulua.**– Ikastetxearen curriculum-proiektua.

1.– Oinarrizko maila eta maila ertaineko musika-irakaskuntzen curriculum zehaztu eta osatuko dute ikastetxeek, eta curriculum-proiektuak prestatuko dituzte emandako maila bakoitzarentzat.

2.– Curriculum-proiektuak, era berean, maila bakoitzaren helburu, eduki eta ebaluazio-irizpideen kurtso-kako banaketa hartuko du bere baitan, eta irakasgai bakoitzaren programak ere hartuko ditu barne. Banaketa hori ez zaio ikasle-talde berari aldatuko ikastetxean ematen diren mailan edo mailetan zehar.

3.– Ikastetxearen curriculum-proiektua ikastetxe horretako irakaskuntza-jardueraren programazioaren zati izango da, eta dagokion programazio orokorrari erantsiko zaio.

**Artículo 14.**– Programas de Especialización Profesional.

1.– Con objeto de desarrollar y completar los procesos formativos específicos iniciados en el tercer ciclo del Grado Medio de Música, y de acuerdo con lo establecido en el artículo 39.5 de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación regulará estudios posteriores a la obtención del Título Profesional de Música. Estos estudios recibirán el nombre genérico de Programas de Especialización Profesional.

2.– Se crea el Programa de Especialización Profesional en «Pedagogía general y especializada». De acuerdo con lo establecido en la transitoria 7a del Decreto 289/1992, de 27 de octubre, por el que se regulan las normas básicas por las que se regirán la creación y funcionamiento de los centros de enseñanza musical específica, no reglada, Escuelas de Música, en la Comunidad Autónoma de Euskadi, esta formación habilitará para el ejercicio de la docencia en los niveles 1, 2 y 3 de las Escuelas de Música. El Departamento de Educación, Universidades e Investigación establecerá su currículo y características. A quienes lo superen les emitirá los correspondientes Certificados, en los que se hará constar el nivel o niveles para los que habilita.

3.– Con carácter prioritario, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación establecerá Programas de Especialización Profesional en Lutería, en Recuperación de Archivos Musicales,... Podrán tener un carácter definitivo o experimental. Estos últimos serán evaluados en un plazo máximo de tres cursos desde su implantación, procediéndose, en caso de evaluación positiva, a su ordenación académica generalizada.

#### CAPÍTULO IV DISPOSICIONES COMUNES

**Artículo 15.**– Proyecto curricular de centro.

1.– Los centros docentes concretarán y completarán el currículo de las enseñanzas de música de Grado Elemental y Medio mediante la elaboración de proyectos curriculares para cada Grado que impartan.

2.– El proyecto curricular incluirá asimismo la distribución por cursos de los objetivos, contenidos y criterios de evaluación de cada Grado e incluirá los programas de cada asignatura. Dicha distribución no deberá variar para un mismo grupo de alumnos a lo largo del Grado o Grados que se impartan en el centro.

3.– El proyecto curricular del centro formará parte de la programación de la actividad docente de dicho centro y se incorporará a la programación general correspondiente.

4.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak curriculumaren garapena erraztuko duten materialak prestatzea sustatu, eta irakasleen lana ildo horretatik bideratzeko xedapenak emango ditu; era berean, irakasleen birziklatzea bultzatuko du, ekintza iraunkorreko planen bidez.

**16. artikulua.**– Programazioak.

Irakasleek beren irakaslanaren programazioak garatuko dituzte, ikastetxearen curriculumarekin eta curriculum-proiektuarekin bat etorrita.

**17. artikulua.**– Tutoretza eta orientazioa.

1.– Tutoretza eta orientatzailetza irakaslanaren zati dira, eta maila osoan zehar garatuko dira.

2.– Ikasle-talde bateko irakasle tutoreak bere gain izango du ebaluazioa eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak koordinatzeko erantzukizuna, eta ikasleen orientazio pertsonalaz arduratuko da.

3.– Tutoreak izendatu eta ikasleak dagozkien tutoretzetan banatzeko prozedura zentro bakoitzaren barne-arauegian zehaztuko da.

**18. artikulua.**– Ebaluazioa.

1.– Oinarrizko mailako eta maila ertaineko ebaluazioa burutzeko, hezkuntza-helburuak eta curriculumean ezarritako ebaluazio-irizpideak hartuko dira kontuan.

2.– Ikasleen ikasketa-ebaluazioa jarraia eta integratzailea izango da, curriculumeko irakasgai bakoitzaren arabera bereiztuko den arren.

3.– Ikaslearen irakasle-taldeak egingo du ebaluazioa, irakasle tutorearen koordinaziopean. Irakasle horiek, beraz, era integratuan jokatu dute ebaluazio-prozesuan, eta prozesu horren ondoriozko erabakian hartzerakoan.

4.– Irakasleek ondokoak ebaluatuko dituzte:

- Euren irakaskuntza-jarduera.
- Irakaskuntza-prozesuak.
- Ikaslearen ikasketa.

5.– Ekainean suspenditu duten ikasleek bigarren deialdia izango dute. Ikasleak gainditu gabeko irakasgai bat baino gehiago badu, kasuan kasuko irakasleen aurrean egin beharko ditu probak, eta ondoren, bere irakasle-taldeak egingo du ebaluazioa, irakasle tutoreak koordinatuta, ikaslea hurrengo kurtsora igarotzen den ala ez zehazteko.

**19. artikulua.**– Promozioa.

1.– Kurtso-errepikapen bakarra baino ez da onartuko oinarrizko mailan. Maila ertainean, berriz, bi urte izango da kurtso bakoitzean irauteko muga; hiru urte, ziklo bakoitzean; eta zortzi urte maila osoan.

4.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación fomentará la elaboración de materiales que favorezcan el desarrollo del currículo y dictará disposiciones que orienten el trabajo del profesorado en este sentido, así como potenciará el reciclaje del profesorado mediante planes de acción permanente.

**Artículo 16.**– Programaciones.

Los profesores desarrollarán programaciones de su actividad docente de acuerdo con el currículo y con el proyecto curricular de centro.

**Artículo 17.**– Tutoría y orientación.

1.– La función tutorial y orientadora que forma parte de la función docente se desarrollará a lo largo de todo el Grado.

2.– El profesor tutor de un grupo de alumnos tendrá la responsabilidad de coordinar tanto la evaluación como los procesos de enseñanza y de aprendizaje y realizará la función de orientación personal de los alumnos.

3.– El procedimiento de nombramiento de tutores y distribución de los alumnos en las respectivas tutorías vendrá establecido en el Reglamento de Régimen Interno de cada centro.

**Artículo 18.**– Evaluación.

1.– La evaluación en los Grados Elemental y Medio se llevará a cabo teniendo en cuenta los objetivos educativos, así como los criterios de evaluación establecidos en el currículo.

2.– La evaluación del aprendizaje de los alumnos será continua e integradora, aunque diferenciada según las distintas asignaturas del currículo.

3.– La evaluación será realizada por el conjunto de profesores del alumno coordinados por el profesor tutor, actuando dichos profesores de manera integrada a lo largo del proceso de evaluación y en la adopción de las decisiones resultantes de dicho proceso.

4.– Los profesores evaluarán:

- Su propia práctica docente.
- Los procesos de enseñanza.
- El aprendizaje del alumno.

5.– Los alumnos suspendidos en junio dispondrán de una segunda convocatoria. De ser varias las asignaturas suspendidas, tras realizar las pruebas ante los profesores correspondientes, la evaluación la realizará el conjunto de sus profesores coordinados por el profesor tutor al objeto de determinar si el alumno promociona o no al curso superior.

**Artículo 19.**– Promoción.

1.– En el Grado Elemental sólo cabrá una repetición de curso. En el Grado Medio el límite de permanencia en cada curso será de dos años, no pudiéndose permanecer más de tres en cada ciclo ni más de ocho en el total del Grado.

2.– Salbuespen gisa, urtebetez luza daiteke iraupena maila bakoitzean; betiere, ikasketen garapenari enbarazu handia egin dion gaixotasuna edo antzeko arrazoiaren bat izan bada. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako jarritako prozedurari jarraitu beharko zaio halakoetan.

3.– Oinarrizko mailan eta maila ertainean, ikasleak kalifikazio negatiboa ateratzen badu bi irakasgaitan edo gehiagotan, ezingo du hurrengo kurtsora igaro.

4.– Ikastetxe bakoitzak ezarriko du errekupeazio prozesua. Eskola-kontseiluaren edo, ikastetxe pribatuetan, aginpidedun organoaren onespina izan beharko du, eta Ikuskaritza Teknikoaren O.E.

#### 20. artikulua.– Ziurtagiria eta titulazioa.

1.– Oinarrizko maila amaitu ondoren, bertan finkatutako helburuak lortu dituzten ikasleek dagokien ziurtagiria jasoko dute.

2.– Maila ertaina amaitu ondoren, bertan finkatutako helburuak lortu dituzten ikasleek, ikasitako espezialitatea adieraziko duen titulu profesionala eskuratzeko eskubidea izango dute.

3.– Titulu hori atera eta Batxilergoko irakasgai komunak gainditu dituzten ikasleek, gainera, Musika Batxilergoko titulua eskuratu dute.

21. artikulua.– Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako curriculum-egokitzapenak.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak irakasuntza hauetara sartzeari dagokionez, 1998ko uztailearen 24ko Aginduaren lehen xedapen gehigarriak ezarritakoari begiratuko zaio (1998-08-31ko EHAA), ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuaren 16. artikulua garatu baitu. Dekretu horrek, gogoratu, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatu du, eta 1998-07-13ko EHAAan argitaratu da.

#### 22. artikulua.– Irakasgaiak ematea.

